

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

3872

77/2023 EBAZPENA, uztailaren 24koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Estatuko Administrazio Orokorrarekin (Kontsumo Ministerioaren Joko Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiaren bidez) sinatutako hitzarmena, interkonexio automatizatuaren bidez administrazio bakoitzaren joko-galarazpenen erregistroetan egindako inskripzioak Elkarri Aitortzeko Sistema bat ezartzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak sinatu egin du aipatutako hitzarmena, eta, publikotasun egokia emateko, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Estatuko Administrazio Orokorrarekin (Kontsumo Ministerioaren Joko Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiaren bidez) sinatutako hitzarmena, interkonexio automatizatuaren bidez administrazio bakoitzaren joko-galarazpenen erregistroetan egindako inskripzioak Elkarri Aitortzeko Sistema bat ezartzeko. Hitzarmen hori ebazpen honen eranskin gisa agertzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko uztailaren 24a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN UZTAILAREN 24KO 77/2023 EBAZPENARENA

HITZARMENA, ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN (KONTSUMO MINISTERIOAREN JOKO ANTOLAMENDUKO ZUZENDARITZA NAGUSIAREN BIDEZ) ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN (SEGURTASUN SAILAREN BIDEZ) ARTEKOA, INTERKONEXIO AUTOMATIZATUAREN BIDEZ ADMINISTRAZIO BAKOITZAREN JOKO-GALARAZPENEN ERREGISTROETAN EGINDAKO INSKRIPZIOAK ELKARRI AITORTZEKO SISTEMA BAT EZARTZEKO.

BILDU DIRA:

Alde batetik, Mikel Arana Echezarreta jauna, Kontsumo Ministerioko Jokoa Antolatzeko zuzendari nagusia, maiatzaren 5eko 513/2020 Errege Dekretuaren bidez izendatua, Kontsumo Ministerioko Jokoa Antolatzeko Zuzendaritza Nagusiaren (aurrerantzean, JAZN) izenean eta hura ordezkatzuz, urriaren 6ko CSM/940/2020 Aginduaren (gastuetarako kredituak administratzeko mugak ezartzekoa eta eskumenak eskuordetzekoa) zazpigarren 1. apartatuko c) letrak hari eskuordetutako eskumenen arabera.

Eta bestetik, Aitor Mikel Uriarte Unzalu jauna, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Joko eta Ikuskizunen zuzendaria, Lehendakariaren apirilaren 16ko 308/2013 Dekretuaren bidez izendatua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (aurrerantzean, EAE) izenean eta hura ordezkatzuz.

Bi alderdiek ordezkari horretan parte hartzen dute, beren karguek ematen dizkieten ahalmenekin, eta elkarri aitortzen diote betebeharrak hartzeko eta hitzartzeko gaitasuna eta legitimazioa, horretarako:

ADIERAZTEN DUTE:

I

Joko Politiken Kontseiluak, zeina eratu baitzen jokoaren arloan Estatuko Administrazio Orokorraren, autonomia-erkidegoen eta Ceuta eta Melilla hirien lankidetzaren, partaidetzaren, hala badagokio, koordinazioko organo gisa, erabaki bat onartu zuen 2021eko uztailaren 14an, zeinaren bidez zehazten baitira Estatuko eta autonomia-erkidegoetako joko-galarazpenen erregistroen artean lankidetzaren estuagoa ezartzeko printzipioak.

Akordio hau joko-jarduerak arautzen eta gainbegiratzen eta kolektibo kalteberak babesten parte hartzen duten eragile publiko guztien debekatuen erregistroak arautzen dituzten berezitasunak aitortzean oinarritzen da, Autonomia-erkidegoek eta Estatuko Administrazio Orokorrak garatutako ereduak errespetatuz eta baloratuz; izan ere, eredu horietako bakoitza beren errealitatearekin lotura estua duen esparru sozial eta politiko espezifiko baten ondorio da.

Hain zuzen ere, horregatik, Erabaki horrek, hitzarmen bat sinatu duten joko-agintaritzek egindako inskripzioak, aldaketak eta ezeztapenak elkarri aitortzean oinarritzen denez, aukera ematen du erregistro autonomikoetan dauden inskripzioak Jokorako Interdikzioen Erregistro Orokorrera (aurrerantzean, JIEO) helarazteko, eta alderantziz, inplikaturako jokoa arautzen duten agintaritzaren guztien araudi partikular bakoitzaren babes-bertuteak zabaltzeko. Jatorrizko agintaritzak helarazitako datuak erabat eskuragarri izatearen ildotik, elkarri aitortze horrek esan nahi du, halaber, sistemara konektatutako erregistroetako batean sartutako datuen aldaketak eta ezeztapenak pertsona hori sistemaren lehen aldiz inskribatu duen joko-agintaritzak bakarrik egin ditzakeela.

II

Jokoa arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen 22.3 artikulua aurreikusten duenez, Jokoaren Batzorde Nazionalak (haren eskumenak Jokoa Antolatzeko Zuzendaritza Nagusiak egikaritzen ditu, hala adierazten baitute berariaz lege horren lehen xedapen iragankorrak eta Merkatuaren eta Lehiaren Batzorde Nazionala sortzeko ekainaren 4ko 3/2013 Legearen hamargarren xedapen gehigarriak) eta Autonomia-erkidegoetako organo eskudunek beren joko-erregistroen interkonexioa erabaki ahal izango dute, dagozkien hitzarmenen bidez. Aurreikuspen bera jasotzen da azaroaren 14ko 1614/2011 Errege Dekretuan, aipatu Legea garatzen duenean, jokoaren lizentzia, baimen eta erregistroei dagokienez.

Bestalde, azaroaren 14ko 1614/2011 Errege Dekretuaren 62. artikulua adierazten du Estatuko jokoa arautzeko ardura duen agintaritzak, Joko Politiken Kontseiluan ezartzen den esparruan, hitzarmenak egingo dituela Autonomia-erkidegoekin, honako hauek zehazteko: erregistro autonomikoetako datuak JIEOn inskribatzeko prozedura, datuak komunikatzeko prozesuak bizkortzea eta, hala badagokio, joko-galarazpenen erregistroen interkonexioa. Jarraian, 62. artikulua horrek ezartzen du, batetik, jokoa arautzeko estatuko agintaritzak, aipatutako esparruan eta zehazten den maiztasunarekin, Autonomia-erkidegoetako jokoaren arloko organo eskudunei helaraziko dizkiela JIEOn egindako inskripzioak, aldaketak eta ezeztapenak, eta, bestetik, aipatutako esparruaren arabera hitzarmen bat sinatu duten Autonomia-erkidegoetako jokoaren arloko organo eskudunek jokoa arautzeko ardura duen agintaritzari helaraziko dizkiotela beren erregistroetan egindako inskripzioak, aldaketak eta ezeztapenak.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokorra onesten duen dekretua aldatzen duen otsailaren 8ko 19/2022 Dekretuaren 18. artikulua ezartzen duenez, Jokoa Arautzeko Agintaritzak koordinatuko du joko-galarazpen autonomikoen erregistroa Espainiako estatuan dauden baliokideekin, datuak komunikatzeko eta, hala badagokio, joko-galarazpenen erregistroen interkonexiorako formalizatzen diren hitzarmenen arabera.

III

Jokoa Antolatzeko zuzendari nagusiak jokoaren arloan Jokoa Arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legean eta azaroaren 14ko 1614/2011 Errege Dekretuan Jokoa Arautzeko Zuzendaritza Nagusiari esleitzen zaizkion eskumenen arabera jarduten duela, bai eta hitzarmenen arloan ere, urriaren 6ko CSM/940/2020 Aginduaren (gastuetarako kredituak administratzeko mugak ezartzeari eta eskumenak eskuordetzeari buruzkoa) zazpigarren 1. apartatuko c) letrak hari eskuordetutako eskumenen arabera.

Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen zuzendariak jokoaren arloan honako arau hauetan Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari esleitzen zaizkion eskumenen arabera jarduten du: Euskal Autonomia Erkidegoan jokoa arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokorra onesten duen uztailaren 27ko 120/2016 Dekretua, otsailaren 8ko 19/2022 Dekretuaren bidez aldatua; eta Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretua.

IV

Adierazi den guztiaren arabera, eta bi alderdiak ados egonik Estatuko eremuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan joko-galarazpenen erregistroetan egindako inskripzioak elkarri aitortzeko, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan eta hura garatzeko emandako gainerako xedapenetan jasotako formalitateak bete ondoren, hitzarmen hau sinatzen dute, honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Xedea eta aplikazio-eremua.

Hitzarmen honen xedea da Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko joko-galarazpenen erregistroen artean lankidetzaren mekanismo bat ezartzea, horietako bakoitzean egindako inskripzioak elkarri aitortu ahal izateko, informazioa helaraziz, eta helburu hori lortzeko beharrezkoak diren garapen informatikoak egiteko.

Hitzarmen honen helburua da herritarrei zuzendutako babes-eredu ezin hobea lortzea, Jokorako Interdikzioen Erregistro Orokorren (aurrerantzean, JIEO) eta Euskal Autonomia Erkidegoko debekatuen erregistro autonomikoaren araudi-berezitasunak elkarri aitortzearen esparruan, eta bi alderdiek garatutako ereduak errespetatzea eta baloratzea, klausuletan hartutako konpromisoen bidez.

Bigarrena.– Joko Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiaren konpromisoak.

1.– Jokoa Antolatzeko Zuzendaritza Nagusiak (aurrerantzean, JAZN) konpromisoa hartzen du JIEOn inskribatzeko, erregistro horretan inskribatzeko dagokion ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko debekatuen erregistro autonomikoan dauden pertsonen inskripzioak, agintaritza autonomikoak JAZNari bidaltzen dizkionak Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren Datuen Bitartekaritza Plataformaren bidez (aurrerantzean, Datuen Bitartekaritza Plataforma).

Inskripzio horietan jasoko da inskribatutako pertsonak Euskal Autonomia Erkidegoko debekuen erregistrokoak direla, eta, beraz, debekatuta egongo da estatu-mailako joko-jardueretara sartzea, aplikatu beharreko estatu-araudian aurreikusitako moduan.

Euskal Autonomia Erkidegoak JAZNari bidaltzen dizkion informazioak ezingo dira inskribatu, ezeztatu edo aldatu JIEOn inskribatuta dauden pertsonen dagokienez, ez eta debekuen erregistro autonomikoan inskribatutako pertsonaren identitatean akats nabarmenak dituzten pertsonen dagokienez ere.

2.– JAZNak klausula honen 1. atalean aurreikusitako JIEOko inskripzioak aldatu edo ezerez-tuko ditu, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoak, aldez aurretik eta berariaz, dagokion erregistro autonomikoko inskripzioa aldatu edo ezeztatu badu, eta, gainera, horren berri eman badio JAZNari Datuen Bitartekaritza Plataformaren bidez.

3.– JAZNak Euskal Autonomia Erkidegoari jakinaraziko dizkio JIEOko inskripzio guztiak, bai eta JIEOko inskripzio horiek aldatzetik edo ezeztatzetik eratorritako informazio-eguneratzeak ere, Datuen Bitartekaritza Plataformaren bitartez.

4.– JAZNak informazio estatistikoa jarriko du Euskal Autonomia Erkidegoaren eskura, eskaeran adierazitako helbidea eta lurralde-eremua bat datozenean JIEOn egindako inskripzioei buruz.

5.– JAZNak azaroaren 14ko 1614/2011 Errege Dekretuak xedatzen duenera egokituko ditu klausula honetan adierazitako JIEOko inskripzioak, aldaketak eta ezeztapenak.

Hirugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoaren konpromisoak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoak JAZNari bidaliko dio, Datuen Bitartekaritza Plataformaren bidez, hitzarmen hau indarrean jarri ondoren bere autonomia-erregistroan debekuen inguruan egindako inskripzioei buruzko informazioa, bai eta inskripzio horien aldaketa eta ezeztapenei buruzkoa ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko araudian hala zehazten denean, araudi horrek ez dio JAZNari bidaliko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikuluan aurreikusitakoaren arabera JIEOn inskribatzearen aurka espresuki egin duten pertsonen debekuen erregistro autonomikoko inskripzioei buruzko informazioa.

Euskal Autonomia Erkidegoko formularioak berriaz jaso beharko du apartatu honetan aurreikusitako datu-tratamendua, bai eta datu pertsonalen babesaren arloko araudia erabat betetzeko beharrezkoa den beste edozein informazio ere.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoak jakinarazten dituen JIEOko inskripzioek joko guztietan parte hartzeko eta/edo parte-hartzaileak identifikatzea eskatzen duen sarbide-kontrola ezarrita duten establezimendu guztietan sartzeko ezintasuna ekarriko dute, baita aplikatu beharreko araudi autonomikoak zehazten dituen beste ondorio batzuk ere. Aurrekoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak bakarrik aldatu edo ezeztatu ahal izango ditu inskripzio horiek Euskal Autonomia Erkidegoko debekuen erregistroan.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoak konpromisoa hartzen du, klausula honen 1. atalean aurreikusitakoaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoak bidali dizkionak ez diren eta jakinarazi zaizkion JIEOko inskripzioen ondorioz, joko guztietan parte hartu ezin izateko eta/edo parte-hartzaileak identifikatzea eskatzen duen sarrera-kontrola ezarrita duten establezimendu guztietan sartu ezin izateko. JIEOko inskripzio horiek ezin izango dira aldatu edo ezeztatu Euskal Autonomia Erkidegoaren eskaera baten bidez, baizik eta zuzenean JAZNaren bidez, Estatuko araudian xedatutakoaren arabera.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoak konpromisoa hartzen du JAZNaren formulario ofiziala erabiliz egoitza elektronikoan edo bulego fisikoetan jasotzen dituen inskripzio-eskaerak JAZNra bidaltzeko, erregistroen interkonexio-sistema (SIR) erabiliz, eta ez bitartekaritza-plataformaren bidez. Eskaera horiek ez dute loturarik izango Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroan izena ematearekin, Justizia Administrazioako Zuzendaritza Nagusian zuzenean inskribatzeko eskaerak baitira, JAZNaren inprimaki ofiziala erabili dutelako.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoak ez dio JAZNari bidaliko hitzarmen hau indarrean jarri aurretik bere erregistroan egindako debekuen inskripzioei buruzko informazioa, ez eta inskripzio horien aldaketa edo ezeztapenei buruzkoa ere.

6.– Euskal Autonomia Erkidegoak sustatuko du hitzarmen hau indarrean jarri aurretik bere erregistro autonomikoan izena emanda zeuden pertsonen debekuen erregistro autonomikoan izena emateko aukera JIEOera ere zabaltzeko aukera ezagut dezaten. Horretarako, egokitzeak jotzen duen bidea erabiliz, modu horretan jarduteko beharrezkoak diren izapideen berri emango du, indarrean dagoen araudiarekin bat etorritik.

Laugarrena.– Bi alderdien konpromisoak.

JAZNak eta Euskal Autonomia Erkidegoak konpromiso hauek hartzen dituzte:

1.– Hitzarmenaren betearazpenari sistemak behar bezala funtzionatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide teknikoak atxikitzea. Horretarako, gerta daitezkeen gorabeheren jarraipena egingo dute bi alderdiek, eta Jarraipen Batzordearen bidez koordinatuko dira, konpontzeko.

2.– Trukatutako komunikazioen ebidentziak zaintzea 6 urtez.

3.– Joko-galarazpenen erregistroei eragiten dieten arau-aldaketak eta gaitutako formularioak jakinaraztea.

4.– Hitzarmen honetan jasotako konpromisoak betetzearen ondorioz JAZNaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean jakinarazitako datuen ondorioz, ofizioz eta kosturik gabe egingo da dagokion inskripzioa JIEOn, edo idatzoharra egingo da Euskal Autonomia Erkidegoko debekuen erregistro autonomikoan.

Bosgarrena.– JAZNaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren konpromisoak, Bitartekaritza Plataformari dagokionez.

1.– JAZNak honako jarduketa hauek egiteko konpromisoa hartzen du:

1.– JAZNak Euskal Autonomia Erkidegoaren esku jarriko ditu, Bitartekaritza Plataformak eskaintzen dituen baliabideak erabiliz, erregistro desberdinetako inskripzio, aldaketa edo ezezte berrien administrazioen arteko komunikazioen kudeaketan inplikaturako debekatuen erregistroetako administrazio-arduradunen informazio-sistemen arteko konektibitatea automatizatzeko aukera ematen duten zerbitzu elektronikoak.

Ondorio horietarako, JAZN arduratuko da, Bitartekaritza Plataformako zerbitzuen laguntzarekin, une oro eguneratuta edukitzeaz zerbitzu elektronikoaren dokumentazioa eta espezifikazioa, Bitartekaritza Plataformako deskargen arloan eskuragarri dagoena. Horietan egin beharreko edozein aldaketa alde aurretik adostuko da Euskal Autonomia Erkidegoarekin, ezarpen-egutegi bat ezarriko da eta, ahal den neurrian, zerbitzuan etenik ez dagoela ziurtatuko da.

2.– JAZNak Euskal Autonomia Erkidegoaren esku jarriko du, zerbitzuaren ezaugarri teknikoetan zehaztutako formatuan, JIEOn jasotako debekatuen inskripzioei, aldaketei eta ezeztapenei buruzko informazioa eguneratzea ahalbidetuko duen zerbitzu elektronikoa, Euskal Autonomia Erkidegoak deskargatu ahal izan dezan.

Euskal Autonomia Erkidegoak JIEOn jasotako datuen eguneratzeen Bitartekaritza Plataforman deskarga formalizatzen duenean, JAZNak desgaitu egingo du JIEOren eguneratzeen eskuzko deskargarako web-aplikazioa.

Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoak alde aurretik eskatuta edo zerbitzu-arrazoien gatik, eskuzko sistema gaitu ahal izango da, eta horrek berekin ekarriko du JIEOn jasotako informazioaren eguneratzea deskargatzeko zerbitzua etetea eskuzko deskarga aktibatuta dagoen bitartean.

3.– JAZNak Euskal Autonomia Erkidegoaren eskura jarriko ditu, Bitartekaritza Plataformaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoak bere debekatuen erregistro autonomikoan egindako inskripzioak, aldaketak eta ezeztapenak bidaltzeko behar diren zerbitzuak.

JAZNaren erantzukizuna izango da, Bitartekaritza Plataformak eskaintzen dituen bitartekoen bidez, Euskal Autonomia Erkidegotik datorren informazioaren osotasuna bermatzea, bai eta informazio hori behar bezala tratatzen dela ere, JIEOn sartze aldera. Horrez gain, akatsen bat izanez gero tratatu ez den informazioa berreskuratzeko beharrezkoak diren ekintzak egin beharko ditu.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko interdikzioen erregistroan ere jasoko diren JIEOko inskripzioei buruzko informazio eguneratua bidaltzea Bitartekaritza Plataformaren bidez, bai eta inskripzio horiek aldatzeko edo baliogabetzeko eskaerak ere, hiru egun baliaduneko epean, debekatuen erregistroan dagokion inskripzioa, aldaketa edo deuseztapena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, plataforma horrek eskaintzen dituen bitartekoen bidez. Ondorio horietarako, sistemak itzulitako errore-mezuak tratatu beharko ditu JAZNak, informazioa Euskal Autonomia Erkidegora behar bezala helarazi dela ziurtatzeko, eta behar diren zuzenketa-mekanismoak ezarri beharko ditu hark jaso dituela ziurtatzeko.

Baldin eta, arrazoi arrazoituak direla medio, JAZNak ez badu abian jarri Bitartekaritza Plataformaren erabilera eraginkorra informazioa bidaltzeko, hark hiru egun balioduneko epean bidali ahal izango du debekatutako erregistroan inskribatu, aldatu edo ezerezteko egintzei buruzko informazioa, hitzarmen hau indarrean jarri ondoren egin badira, dagokion inskripzio-, aldaketa- edo deuseztatze-egintza gertatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, igorritako informazioaren osotasuna bermatzen duten beste bitarteko batzuen bidez.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoak konpromiso hauek hartzen ditu:

1.– JAZNak eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzea, Bitartekaritza Plataformaren bidez, JIEOn eguneratzeak deskargatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoaren erantzukizuna izango da, Bitartekaritza Plataformak eskaintako bitartekoen bidez, jasotako informazioaren osotasuna bermatzea eta informazio hori bere informazio-sistemetan behar bezala txertatzea, eta errorerik izanez gero tratatu gabeko erregistroak berreskuratzeko beharrezkoak diren ekintzak egin beharko ditu.

2.– JIEOn ere inskribatuko diren bere erregistroko inskripzioei buruzko informazio eguneratua bidaltzea Bitartekaritza Plataformaren bidez, bai eta inskripzio horiek aldatzeko edo ezereztatze eskaerak ere, hiru egun balioduneko epean, debekatuen erregistroan dagokion inskripzioa, aldaketa edo deuseztapena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, plataforma horrek eskaintzen dituen baliabideen bidez. Ondorio horietarako, Euskal Autonomia Erkidegoak sistemak itzulitako errore-mezuak tratatu beharko ditu, informazioa behar bezala helarazi dela ziurtatzeko, eta Justizia Administrazioako Zuzendaritza Nagusira bidali dela ziurtatzeko zuzenketa-mekanismoak ezarri beharko ditu.

Baldin eta, arrazoitutako arrazoiengatik, Euskal Autonomia Erkidegoak ez badu abian jarri Bitartekaritza Plataformaren erabilera eraginkorra informazioa bidaltzeko, hitzarmen hau indarrean jarri ondoren egindako debekatuen erregistroko inskripzio-, aldaketa- edo ezerezte-egintzei buruzko informazioa bidali ahal izango du, hiru egun balioduneko epean, dagokion inskripzio-, aldaketa- edo deuseztatze-egintza gertatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, igorritako informazioaren osotasuna bermatzen duten beste bitarteko batzuen bidez.

3.– JAZNak eta Euskal Autonomia Erkidegoak konpromisoa hartzen dute Bitartekaritza Plataformarekin lotutako jarduketa hauek egiteko:

1.– Klausula honetan aurreikusitako interkonexiorako zerbitzu elektronikoak erabiltzeko eskaera egitea, Bitartekaritza Plataforman horretarako ezarritako mekanismoen bidez.

2.– Bitartekaritza Plataformak emandako nortasuna autentifikatzeko, transmititzeko eta egiaztatze zerbitzu horizontalak erabiltzeko eskubidea. Horretarako, bi alderdiek hari atxikitzeke izapideak egin beharko dituzte, bai eta horren ondoriozko betebeharrak bete ere.

3.– Sistemak itzulitako errore-mezuak tratatuko dituen mekanismo edo prozedura bat ezartzeko eskubidea, informazioa behar bezala helarazi dela ziurtatzeko Justizia Administrazioako Zuzendaritza Nagusira edo Euskal Autonomia Erkidegora, eta mezu horiek jaso direla bertutuko duten zuzenketa-mekanismoak ezartzeko.

4.– Hitzarmen honetan jasotako konpromisoak betetzearen ondorioz JAZNaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean jakinarazitako datuek eskatzaileari ofizios eta kosturik gabe egitea dagokion inskripzioa edo idatzoharra JIEOn edo Euskal Autonomia Erkidegoko debekuen erregistro autonomikoan.

Seigarrena.– Araubide ekonomikoa.

Hitzarmen hau gauzatzeak ez du alderdi sinatzaileen arteko kontraprestazio ekonomikorik ekarriko.

Zazpigarrena.– Jarraipen Batzordea eta eztabaidak ebaztea.

1.– Hitzarmen honen Jarraipen Batzorde bat ezartzen da, gutxienez urtean behin bilduko dena, sistemaren egoera eta lankidetzeta-mekanismoen funtzionamendua baloratzeko, bai eta hitzarmen honen xede diren interdikzio-erregistroen erabilera eta bilakaera baloratzeko ere, hori guztia babes hobea eta eraginkorragoa emateko eta ereduaren bilakaera funtzional eta teknikoan beharrezkoak diren aldaketak bultzatzeko. Batzordearen bilerak bitarteko elektronikoen bidez egin ahal izango dira.

2.– Batzorde hori, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49 f) artikuluan ezarritakoaren arabera, alderdiek adostutako tresna da hitzarmenaren eta sinatzaileek hartutako konpromisoen jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko.

3.– Hitzarmena osatzen duten alderdietako bakoitzak izendatutako bi pertsonak osatzen dute Batzordea:

– Estatuko Administrazio Orokorraren aldetik: Jokoa Antolatzeko zuzendari nagusia, buru izango dena, eta Jokoa Arautzeko zuzendariorde nagusia.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aldetik: Joko eta Ikuskizun zuzendaria eta hari atxikitako beste pertsona bat.

4.– Alde sinatzaileek konpromisoa hartzen dute Jarraipen Batzordean adostasunez konponatzeko hitzarmen hau interpretatzean eta betetzean sortzen diren desadostasun guztiak. Nolanahi ere, administrazioarekiko auzien jurisdikzioak eskumena izango du sor daitezkeen auzi eta auzi guztiak ebazteko.

Zortzigarrena.– Emandako eta tratatutako datuen kontrola eta segurtasuna.

Emandako eta tratatutako datuen kontrola eta segurtasuna honako hauetan xedatutakoaren arabera arautuko da: 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoaren babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena (eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena); 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa; datu pertsonalak babesteari buruzko barne-ordenamenduko erregelamenduzko xedapenak; 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duena; eta segurtasun-politiken barruan onartutako dokumentuak.

Ondorio horietarako, alderdi sinatzaileek konpromisoa hartzen dute hitzarmen honen babesean emandako datuei buruzko sekretu-betebeharra betetzeko eta datu horiek konfidentziasunez tratatzeko. Horretarako, behar diren neurriak hartuko dituzte ez aldatzeko, ez galtzeko, ez tratatzeko edo baimenik gabe ez sartzeko.

Datuak babesteari dagokionez, hitzarmen honen babesean tratatzearen helburua izango da joko-galarazpenak kudeatzea, interesduna joko-jardueretatik kanpo uztea ahalbidetuz, bai eta jokoaren arloko helburu historiko, estatistiko eta zientifikoetarako tratamenduak egitea eta horiek gizartean duten eragina ere.

Datu pertsonalen tratamendu hori beharrezkoa da legezko betebeharrak betetzeko, maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen 21. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Justizia Administrazioaren Zuzendaritzari emandako botere publikoen egikaritzarekin lotuta, lege-testu bereko 9) – «Parte-hartzaileen eta talde kalteberen interesak babestuta daudela ziurtatzea» – eta 12) – «Lege honetan aurreikusitako erregistroak kudeatzea» – apartatuen arabera, eta Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 23. artikuluan arabera eta Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokorra onartzen duen uztailaren 27ko 120/2016 Dekretuaren 18. artikuluan arabera.

Tratatu beharreko datuek interesdunaren identifikazio-informazioaren kategoria dute, bat baitatoz haren identifikazio-dokumentuan jasotako datuekin (AIZ, NAN, pasaporte edo beste identifikazio-agiri bat), eta horiei telefona edo posta elektronikoa gehi dakieke, inskripzio-arrazoiaz gain.

Hitzarmen honen babesean emandako datu pertsonalak alderdi bakoitzaren eskumen-eremuan gaitutako joko-operadoreei jakinaraziko zaizkie, esleitutako betebeharrak betetz, interesdunek joko-jardueretan parte hartzea debekatzeko duten eskubidea gauzatzeko, hitzarmen honetan eta dagokion araudian aurreikusitako baldintzetan. Era berean, eta hala eskatzen zaienean, epaitegi eta auzitegiei, legezko errekerimendua betez. Bestalde, ez dago aurreikusita hirugarren herrialdeetara edo nazioarteko erakundeetara transferitzea.

Joko-antolamenduko Zuzendaritza Nagusiaren kasuan, tratamenduaren arduraduna eta datuak babesteko ordezkaria, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren ondorioetarako, honako hauek dira:

Tratamenduaren arduraduna:

Joko Antolamenduko Zuzendaritza Nagusia.

Atocha kalea 3, 28012 Madril

dgoj.dgeneral@ordenacionjuego.gob.es

Datuak babesteko ordezkaria:

Kontsumoko Idazkariordetza.

Alcalá kalea 27, 28014 Madril

dpd@consumo.gob.es

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, tratamenduaren arduraduna eta datuak babesteko ordezkaria honako hauek dira, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren ondorioetarako:

Tratamenduaren arduraduna:

Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritza, Segurtasun Saila.

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba.

Telefona: 945 018 000

Webgunea: <https://www.euskadi.eus>

Datuak babesteko ordezkaria:

Donostia / San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba.

Telefonoa: 945 018 680

Webgunea: www.euskadi.eus/datu-babesa

https://www.euskadi.eus/web01a2datuba/eu/contenidos/arbitraje_denuncia_reclamacion/recl_10842/eu_def/index.shtml

Bederatzigarrena.– Araubide juridikoa.

Hitzarmen hau administrazioen artekoa da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluaren VI. kapituluaren xedatutakoaren arabera.

Hamargarrena.– Hitzarmena aldatzea.

Hitzarmen honen testua aldatu ahal izango da, alderdiek hala adosten badute. Hitzarmenaren aldatzea oro gehigarri bidez formalizatu beharko da, lege ezarritako baldintzen arabera eta urriaren 1eko 40/2015 Legearen 50. artikuluan aurreikusitako baimena lortu ondoren.

Hamaikagarrena. Hitzarmenaren indarraldia eta luzapena.

Hitzarmen honek lau urte naturaleko iraupena izango du, Estatuko sektore publikoko Lankidetzaren Organo eta Tresnen Estatuko Erregistro Elektronikokoan inskribatzen den egunetik aurrera, eta behin bakarrik luzatu ahal izango da, berariazko gehigarri baten bidez.

Alderdiek adostasuna emanez burutuko da hitzarmena, eta eraginkorra izango da 5 egun balioduneko epean Estatuko sektore publikoko Lankidetzaren Organo eta Tresnen Estatuko Erregistro Elektronikokoan inskribatutakoan. Gainera, formalizatzen denetik 10 egun balioduneko epean, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Hitzarmen hau, alde zuzenetik eta nahi izanez gero, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ahal izango da.

Hamabigarrena. Azkentzea eta aurretiazko suntsiarazpena.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, hitzarmen hau azkendu egingo da haren xede diren jarduketak betetzen direnean edo suntsiarazteko arrazoiren bat dagoenean.

Honako hauek dira hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak:

1.– Hitzarmenaren indarraldia amaitzea haren luzapena adostu gabe.

2.– Alderdien adostasuna. Horretarako, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 50. artikuluan aurreikusitako baimena eduki beharko da.

3.– Sinatzaileek beren gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.

Kasu horretan, alderdietako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio bete ez duen alderdiari, bete gabetzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak hiru hilabetean bete ditzan. Errekerimendu hori hitzarmenaren betearazpenaren jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoaren arduradunari eta beste alderdi sinatzaileari jakinaraziko zaie.

Errekerimenduan adierazitako epea igarotakoan ez-betetzeak bere horretan badirau, errekerimendua egin zuen alderdiak beste alderdiari jakinaraziko dio hitzarmena suntsiarazteko arrazoia dagoela, eta hitzarmena suntsituztat joko da.

4.– Epaileak hitzarmena deuseztatzeko erabakia hartzea.

5.– Aurrekoez bestelako edozein arrazoi, hitzarmenean edo beste lege batzuetan aurreikusita badago.

Hitzarmena betetzen bada eta suntsiarazten bada, likidatu egingo da, alderdi bakoitzaren betebeharrak eta konpromisoak zehazteko, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoaren arabera.

Era berean, alderdi sinatzaileek hitzarmena bertan behera utzi ahal izango dute alderdietako edozeinek hitzarmena salatuz gero. Horretarako, beste alderdiari jakinarazi beharko diote, modu fede-emailean, proposatutako suntsiarazpen-data baino hiru hilabete lehenago gutxienez.

Sinatzaileek beren gain hartutako betebeharrak ez betetzeagatik hitzarmena suntsiarazten bada, ez da kalte-ordainik emango.

Hitzarmena suntsiarazten bada, bi alderdiek, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 52.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, abian diren jarduketan jarraipena eta amaiera ziurtatzeko beharrezko neurriak hartu beharko dituzte, haiek adostu ziren moduan.

Aurreko guztia alderdien borondatearen isla zehatza denez, hitzarmen hau elektronikoki sinatzen dute, eta azken sinatzailearen data hartuko da formalizazio-datatzat.

Elektronikoki sinatuta 2023ko uztailaren 12an.

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzako zuzendaria,
AITOR MIKEL URIARTE UNZALU.

Espainiako Gobernuako Kontsumo Ministerioko Jokoa Antolatzeako zuzendari nagusia,
MIKEL ARANA ECHEZARRETA.